

Banaketa-eredu berriak eraginkortasun komertziala indartu du

Kutxabanken irabazia 267,1 milioi eurokoa izan da, %5,1 hazita

- **Epealdi honen gakoetako bat familien finantzaziorako produktuen kontratazio-maila izan da, % 23,6 hazi baitira**
- **Banka negozio errepikariak bilakaera ona izan du berriro ere. Interesen marjina %2,2 igo da, eta aseguruaren negozio errepikaria eta zerbitzuengatik jasotzen diren komisioak egonkor mantendu dira**
- **Urtean zehar oinarriko 56 puntu jaitsi da berankortasuna, eta %3,30koa da, alorreko txikienetakoa**
- **Lehentasunik gabeko senior zorraren jaulkipenak izan duen arrakastak eta nazioarteko agentzien kalifikazioen hobekuntzak merkatuek euskal finantza Taldean duten konfiantza erakusten dute**

2019ko urriaren 31n. Kutxabank Taldeak hirugarren hiruhilekoa **267,1 milioi euroko** mozkin garbiarekin amaitu du, iaz garai berean baino **%5,1** gehiago. Cajasurren ekarpen positiboa **22,8 milioi eurokoa** izan da, 2018ko irailaren amaieran baino **%12,2 handiagoa**.

Eraitza hau ekonomiaren desazelerazio globala nabarmendu den testuinguruan lortu da, urte guztian zehar bere horretan dirauten gertakizun makroekonomikoen haritik, hala nola Estatu Batuen eta Txinaren arteko tentsio komertziala, gobernu iparamerikarraren aranzel-politika, petrolioaren prezioaren lurrunkortasuna, alemaniako ekonomiaren bilakaera edota Brexitaren gaineko ziurgabetasuna. Banka-negozioak, gainera, epe luze batez negatiboan jarraituko duten tipoen egoerari aurre egin behar dio.

Kutxabankentzat hainbat datu positibo jazo dira hiruhileko honetan, bere negozio-eredua eta arrisku-profila zedula hipotekarioetan eta kontraparteko arriskuan **S&P eta Moody's agentzien kalifikazioak hobetu** izanak aintzatetsi baititu. Gainera, merkatuek taldean duten konfiantza ikusi da Erakundeak eginiko senior zorraren jaulkipenak izaniko harreraren, 500 milioi euro arrakastaz kokatu baitzituen lehentasunik gabeko senior zorrean, MREL eskakizunei aurre egin ahal izateko.

Kutxabankek araudi berrien eskakizunei moldatzeko duen ahalmena Mailegu Hipotekarien Lege berria indarrean jarri ostean ikusi da, banka-negozioan izan duen eragina erabat samurtzea lortu baitu.

Hain zuzen ere, 2019ko hirugarren hiruhilekoan **2.786 milioi euro** bideratu ditu familien beharrak finantzatzera, **%23,6** gehiago, zati handiena mailegu-hipotekarioetan.

Epealdi honetako gakoetako bat **etxebizitzak erostera bideratutako maileguen bilakaera** ona izan da. Taldearen dinamika komertzialari esker, urte guztian zehar higiezin maileguen alorrak **%25** inguruko bilakaera izan du, eta horrela mantendu da hiruhileko honetan ere. Irailaren amaieran, urte arteko hazkundera **%25,7koa** izan da, urtarrilaz geroztik **16.000** operazio berri bereganatu ostean.

Datu hauek, mailegu hipotekario berrien produkzioan gehien hazi diren erakundeen artean kokatzen dute Kutxabank, eta gauza beretsua gertatzen da **kontsumora** bideratutako maileguekin ere, **%12,5** hazi baitira. Testuinguru berean deigarria da **Merkataritza Maileguak %44** hazi izana.

Enpresen jarduerarako ere oso zaila ari da izaten testuingurua. Halabaina, zirkulatzailerako finantzazioa **%3,2** igo da.

Ekitaldi osoan zehar, banka-negizoaren baitan jarduera bizenetakoa duen alorra **aseguruen negozioa** ari da izaten, emaitzen kontuari egin dion ekarpena **107 milioi** eurokoa izan baita aurten, iaz baino **%6,5** handiagoa.

Negozio sareek administraturiko baliabideetan iragarpenak gainditzea lortu da, **%5,6ko** bilakaera positiboa izan baitute, batik bat balorazioek eta bereganatzeek bultzatuta. Taldea merkatuaren gainetik kokatu da balantzetik kanpoko baliabideetan, Kutxabank Gestion eta Fineko gestoren bitartez 2019. urtean **bigarren postuan** jarraitzen baitu **izenpetze garbietan**.

Azken hilabeteetako bilakaera positiboaren haritik, **Interesen Marjinak %2,2ko** hazkundera izan du, eta banka-negozioaren sarrera errepikariekin **%2,2koa**, guztira **805,5 milioi** eurotan kokatu arte.

**Banka-negozioa
%2,2 hazi da,
guztira 805,5
milioi**

Horrez gain, dibidenduen sarrerak eta baliokidetasunak **34 milioi** eurokoak izan dira.

Honekin guztiarekin, Marjina Gordina **828,2 milioi eurotan** kokatu da, negozio errepikariak izan duen bilakaerari esker.

Kostuei eusteko ohikoak dituen irizpideekin, Administrazio Gastuek bere horretan jarraitzen dute.

Kutxabanken mailegu-zorroak duen kalitate onari eta izan duen bilakaerari esker, saneamenduetarako eta ohiko zuzkiduretarako beharrek murrizten jarraitu dute. Hala ere,

alor honetara **139,3 milioi** euro bideratu dira, arriskuaren estaldurarako izan ohi duen zuhurtziaren erakusle.

Gizarte-konpromisoko inbertsioen arrakasta

Negozio sareek kudeatutako bezeroen baliabideak **%5,6** igo dira, eta guztira **62.741 milioi** eurora heldu dira.

Ageriko aurrezkiaren bilakaera onarekin batera, balorazioak hobetu dira eta bereganatze-maila ere ona izan da. Honela, **%5,6** hazi dira **inbertsio fondoak**, eta **%5,1 pentsio planak**.

Irailaren amaieran, **Kutxabank** izenpetze garbietan **bigarren Taldea da, 588 milioi** euroko bolumenarekin, bere merkatu kuotaren gaineretik.

Emitza on honetan lagungarria izan da **kudeatutako zorroen bilakaera**, hauen **batez besteko errentagarritasuna** alorreko onenetakoa izanik.

Gizarte erantzukizuneko irizpideekin konpromiso tinkoa duen erakundea da Kutxabank, eta irizpideok bere jardueran finkatzeko prozesuan sartuta dago. Honen guztiaren helburua da, bere inbertsioen jomuga diren erakundeek Giza Eskubideak, ingurugiroaren zaintza, Gobernu Zuzeneko Politikak eta jarduera fiskal bideragarriak sustatzea.

'ESG' izeneko irizpide hauekin egiten ditu bere inbertsioak Kutxabank Gestioneak, geroz eta inbertsio fondo gehiagotan, eta norbanakoen BGAE guztietan.

Hipoteketan merkatu kuoten hobekuntza nabaria

2019. urte osoan bezala, **mailegu inbertsio produktiboa** hazi egin da, %0,7 hiruhileko honetan, xehekako sarearen jarduera komertzialak, hipoteka berrien produkzioak eta kontsumorako maileguez sustatuta.

Hazkunde honen eragin nabarmenenetakoa hipoteken merkatu-kuotak izan duen hazkunderan ikusten da. Finantza Taldeak Euskadiko hipoteken **merkatu osoaren %45,1** bereganatzen du, urte hasieran baino 4,1 puntu gehiago. Gauza beretsua gertatzen da Kutxabankek jarduera duen gainerako lurraldeetan ere. Horrela, **Espainiako kuota %7,6koa** da, merkatuaren arabera dagokiona baino handiagoa.

Merkatuko joeraren gaintik kokatu da, halaber, empresa txiki eta ertainei zuzendutako finantzazioa ere, **aktibo zirkultzailea %3,2** hazi baita.

Bezeroen %41 digitalak dira

Urtearen lehen erdian mugikorrez ordaintzeko zerbitzu garrantzitsuenak bateratu ostean, nazioarteko 12 'fintech'-ekin akordioak sinatu ditu online negozioa indartzeko, batik bat hipoteken esparruan. Izan ere, geroz eta bezero gehiago jartzen dira Bankuarekin harremanetan tresna digital desberdinen bitartez, azkenean mailegu bat sinatzeko.

Egun, bankuaren bezero guztien **%41,2 erabiltzaile digitalak** dira, eta kopuruak hazten jarraitzen du, geroz eta balorazio hobeeagoekin.

Banka-negozioari ekarpen handiagoa egiten diote, bide batez, **salmenta digitalek**. Hiruhileko honetan **%71** hazi dira, bai eta mugikorraren bitartez sinaturiko **kontsumorako maileguak**, edota Flexibuyren fakturazioa, txartelekin eginiko erosketak geroratzeko.

Jarritako helburuen haritik

Kutxabanken kudeaketa-adierazle nagusiek aurten bere buruari ipinitako helburuak betetzeko bidean jartzen dute Bankua.

Taldeak bere kaudimena era organikoan hobetzen jarraitu du, eta lidergoan jarraitzen du. **Core Tier I (Phase in)** ratioa oinarriko 80 puntutan hobetu da ekitaldian, eta **%16,9koa** da jadanik.

Berankortasun tasa 2019. urte osoan zehar murrizten joan da, zalantzazko aktiboak azken 12 hilabeteetan 500 milioitik gora txikitu eta gero.

Kontingentziazko arriskuak baitan hartuta, Taldearen berankortasuna 53,30koa da, 2018ko irailean baino **oinarriko 111 puntu** gutxiagokoa.

Hobekuntza hauek baieztatzen dutenez, alorrean nagusi duen mailegu-kalitatearen maila hobetzen du Erakundeak.

Gainerako kudeaketa-adierazleetan ere hobekuntza nabariak egin dira. Palankatze ratioa %8tik gorakoa da, alorreko onena. Errentagarritasun ratioek ere hobetzen jarraitzen dute. **ROTE %6,9an** egonkor da, eta **%0,6an ROA**. **Eraginkortasun ratioa**, azkenik, **%55koa** da.

Kutxabanken emaitzak, 2019ko hirugarren hiruhilekoa

Miloi euro	2019 iraila	%Δ
Interesen Marjina	425,4	2,2
Komisioak eta aseguruak (*)	380,1	2,2
Banka negozioaren sarrera errepikariak	805,5	2,2
Dibidenduak eta baliokidetasunak	34,0	-28,1
ROF (**)	6,4	-30,7
Beste Ustiapen Gastuak (*)	-17,7	n.s.
Marjina Gordina	828,2	-1,9
Administrazio Gastuak	-449,6	0,5
Amortizazioak	-40,8	3,2
Ustiapen Marjina	337,9	-5,5
Saneamenduak eta narriadurak (**)	-139,3	-4,4
Beste irabazi eta galerak (**)	110,3	-1,0
Zergak eta bestelakoak	-41,8	-39,2
Taldearen emaitza	267,1	5,1

Kudaketako kontuak kontutan ditu Aseguruaren kalifikazio berria, Sareben narriadura, eta ondare-tresnen eta partaidetzen errebalorizazioko emaitzak